SAKANAKO ASTEKARIA • 2014ko abenduak 24, asteazkena • 2. aldia • 490. zenbakia

guaixe.eus

Urte batean biztanleriaren %1,47 galdu dugu
>>5

Lakuntza, kulturaz herria bizi
>>6-7

Bost etxarriarretatik lau ongi moldatu dira hondakin bilketa berriarekin
>>9

Irurtzungo abesbatza eguberriei kantari
>>14

IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalak larunbatean Etxarrin
>>12

IRENE URROZ

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Juanjo eta Jose
Ordiziako Euskal Herriko Txistor Txapelketan 5. saria lortu berri duzue, ZORIONAK bikote!!

Ekain
Urtarrile bostiaino ez die beye beno, ZORION asko eta muxu asko prezioso!! Zorionak denon partes.

Pello Lazkoz Amillano
ZORIONAK KIROLARI!!!! Azkenean iritsi da eguna, 7 urte!! Besarkada ta muxu pilo bat Xabat, Dulantz, amatxo, aitatxo eta guztion partez.

abenduak-ilbeltzak 24-15

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Gabonetako kontzertua. Abenduaren 27an, larunbatean, 19:30ean Irurtzungo elizan. **Irurtzungo Abesbatza, A. Guerrero eta Marta Huarte.**

Maite Itoiz eta Toti Martinez de Lezea. Abenduaren 27an, larunbatean, 19:00etan Arbizuko Amari yoga magikoan.

Cantos con encanto. Abenduaren 27an, larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Trasteando.**

Asalto, Desvarios Varios eta Fuertes Dementes. Ilbeltzaren 3an, larunbatean, 22:00etan Altsasuko gaztetxean. **Garraxi Irratiak 20 urte.**

Antzerkia

Sutondoan. Abenduaren 27an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **A-Teatral taldea.**

Moonster party. Abenduaren 29an, astelehenean, 17:00etan eta 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Nunca fuimos heroes. Ilbeltzaren 11n, igandean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Tarima Beltza.**

Bideo emanaldiak

Tratu onei buruzko bideoklipa. Ilbeltzaren 9an, ostiralean eta ilbeltzaren 11n, domekan arratsaldez, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Proiekzioak

Euskarak 365 egun Lip Dub, ITB, Gure Esku Dago. Abenduaren 29an, astelehenean, 18:30ean eta 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Aizpea.**

Orritz dantza taldea. 25 urte. Ilbeltzaren 3an, larunbatean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Zinal ibarraren zeharkaldia. Ilbeltzaren 4an, igandean, 19:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.

Dokumentalak

Urruti vs gertu. Ilbeltzaren 3an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean; ilbeltzaren 4an, igandean, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean; ilbeltzaren 8an, ostegunean, 19:30ean Arbizuko udaletxean; ilbeltzaren 9an, ostiralean, 19:00etan, Olatzagutiko kultur etxean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean eta Urdiaingo udaletxean eta 21:30en Bakaikuko udaletxean; ilbeltzaren 11n, igandean, 19:00etan, Iturmendiko auzo-gelan. **Sare.**

Zinema

Exodus. Abenduaren 25ean ostegunean, 20:10ean; abenduaren 26an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 28an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Lasa eta Zabala. Abenduaren 26an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

Olentzero eta iratxoen jauntxoa. Abenduaren 28an, igandean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Mystical. Abenduaren 28an, igandean, 19:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Zinema gabonetan. Abenduaren 30ean, asteartean, 16:15ean (euskaraz) eta 18:00etan (gaztelaniaz) Irurtzungo kultur etxean.

Interstellar. Ilbeltzaren 2an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 4an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Los pingüinos de Madagascar. Ilbeltzaren 4an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Haritzaren bihotza. Ilbeltzaren 4an, igandean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Urte berri on, Amona! Ilbeltzaren 4an, igandean, 19:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Crónicas diplomáticas. Ilbeltzaren 9an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 11n, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

French women. Ilbeltzaren 9an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 11n, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Yugo eta Lala. Ilbeltzaren 9an, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Los juegos del hambre. Ilbeltzaren 15ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Film laburrak

11 urteko ibilaldia 3D animazioan. Abenduaren 27an, larunbatean, 18:30ean Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan. **Urko Mauduit.**

Mendi irteerak

Urbasa, berezia. Abenduaren 28an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Txokolate jatea eta Ergako Trinitatea. Abenduaren 31n, asteazkenean, 9:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan. **Pikuxar eta Iratxo.**

Aizkorri. Abenduaren 31n, asteazkenean, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Aizkorri. Abenduaren 31n, asteazkenean, goizean Olatzagutitik. **Sutegi.**

Bargagain. Ilbeltzaren 5ean, astelehenean, goizean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Beriain. Ilbeltzaren 6an, asteartean, 9:00etan Unanutik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

Beunde. Abenduaren 28an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 37 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

San Silvestre Urbasa. Abenduaren 31n, asteazkenean, 16:00etan Altsasuko Sociedad Deportiva taberna paretik.

Erakusketak

Dispertsioaren aurpegiak. Sakabanaketa politikak eragiten duenaz. Abenduaren 26an, 21:00etatik 22:00etara; abenduaren 27an 17:00etatik 19:00etara; abenduaren 28an, 17:00etatik 21:00etara; ilbeltzaren 3an, 18:00etatik 20:30era eta ilbeltzaren 17:00etatik 21:00etara Etxarri Aranazko kultur etxean.

Sutondoan antzezlana.

Herriko artisten lanak. Abenduaren 27an, larunbatean, egunean zehar Lakuntzako kultur etxean.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Gabonetako txartelak. Ilbeltzaren 6ra Altsasuko Iortia kultur gunean.

Jaiotzak. Ilbeltzaren 11ra arte, astelehenetik larunbatera 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 12:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara Olatzagutian, Sakanako Belenzaleen Elkartearen egoitzan.

Ardiak eta beste. Ilbeltzaren 18ra arte Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Idoia Zufiaurre, chuffi.**

Oroitzapenak. Ilbeltzaren 9tik 25era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean.

Hitzaldiak

Kobazuloak, espeleologoen begiekin. Abenduaren 26an, ostiralean, 19:00etan Arbizuko kiroldegiko tabernan. **Hizlaria: Laurent Richard.**

Bestelakoak

Jolas parkea. Abenduaren 26an, ostiralean, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara Irurtzungo pilotalekuan.

Jolas parkea. Abenduaren 27an, larunbatean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era Olatzagutiko Erburua kiroldegian.

Kultur etxearen mustutzea. Abenduaren 27an, larunbatean, 18:30ean Lakuntzan. Ondoren auzatea.

Mus txapelketa. Abenduaren 28an, igandean, 16:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan.

Jolas-hezkidetzaileak. Altsasun, abenduaren 29an eta 30ean, astelehenean eta asteartean, Altsasuko Zelandi kiroldegian, 11:00etatik 20:00etara., adin guztietako pertsonentzat.

Urteari agurra. Abenduaren 30ean, asteartean, arratsaldean Altsausko Intxostiapunta gazte gunean.

Jolas parkea. Ilbeltzaren 2an, ostiralean, 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era Etxarri Aranazko frontoian.

Urte berriko ospakizuna (afaria eta musika). Ilbeltzaren 3an, larunbatean, gauean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Zorri azoka, merkatu soziala. Ilbeltzaren 4an, igandean, 11:30etik 15:00etara Etxarri Aranazko estalopean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 26an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Abenduaren 28an, ilbeltzaren 4an eta 11n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Hipotekek kaltetutakoen Plataforma. Ilbeltzaren 2an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 2an eta 9an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Elkarrekin
bidea egiten
abenduan
bierrik
fundazioa
20
urte

astekoa

Zoila Berastegi

Emahalduntzen

Badator korrika. Korrika dator. Ez da bat baina… ehundaka dira, milaka esango nuke nik. Zalapartaka, oihuka, algaraka, barrezka… datoz. Badatoz. Kolore guztietakoak daude, tamaina guztietakoak. Gertu dira. Prest. Gertu daude. Han, hor, hemen. Aldamenean, barrenean, sakonean, azalean. Hemen daude ez direlako inoiz joan. Agian ez ditugu ikusi, baina beti egon dira, beti izan dira. Denboraren orratzen joan etorri etengabean jostorratzak hatzetan izan dituztenak dira. Batzuetan hariari tiraka, isiltasunaren etzalekuan, sartu eta atera, zauriak itxi nahiko lituzketen mihizkadak balira bezala. Beste batzuetan korapiloetan preso; haiek askatu nahi eta gehiago estutzen. Eztarria lehor eta ahoa mutu. Amets-gaiztotik esnatzeko oihu egin nahi eta ahots-kordak erantzuten ez dutenean bezala. Eta beste batzuetan aldiz, jostorratzak dantzan jarri dituztenak. Jostorratzek josteko balio izateaz gain, zizt egiteko ere balio dutela jabetuak. Ohiko sartu-atera mugimendu mugatuak apurtu dituztenak, irauli dituztenak. Oihal berriak sortu dituztenak.

Emakumeak dira. Gara. Etxeko lau paretetan jositako oihalak partekatu ditugunak. Eta etxeko lau paretetatik kanpo ere jostera gatozenak; oraindik ere egon badauden korapiloak askatzera; sartu-ateraz gain beste makina bat modu badaudela aldarrikatzera. Gure ahalmenaz, sormenaz, kemenaz jabetuak, jostorratzak dantzan jarri ditugunak gara. Emahalduduak batzuk, emahalduntzen beste batzuk. Baina guztiok hortxe… bidean. Ez dator korrika, korrika datoz. Ehundaka, milaka…

hara zer dien

Zergatik psikologoarengana?

Psikologia: psikea, arima edo norbanakoaren jarduera mentala aztertzen duen zientzia da. Kontuan izaten ditu, besteak beste, pertzepzioa, arreta, motibazioa, emozioak, adimena, pentsamendua, nortasuna, pertsonen arteko harremanak, arlo kontzientea nahiz inkontzientea.

Zer dela eta hainbeste gaitzespen edo beldur pentsatzeari? Geure burua ezagutzeari beldur diogu? Harrigarria dirudi baina askotan horrela gertatzen da. Norberak itzaletan dituen mamutxoak, ezjakintasunak eta kontraesanak askatzeak beldur ikaragarria eragiten du, munstroak esnatzen baitira. Baina zer gertatzen da beste alde batera begiratzen badugu? Desagertzen al dira? Zoritxarrez edo zorionez, ez; hor diraute. Eta gero eta garrasi gehiago egiten dute entzun diezaiegun, zerbaiten seinale dira eta.

Arazo, gatazka edo krisialdi baten aurrean prozesu terapeutiko batean murgiltzeak abantailak dakartza. Bertan, esan ezin direnak esango dira, baita entzun ezin direnak ere. Norbanakoak bere buruari galdetuko dizkio ordura arte galdetu ez dizkionak eta modu horretan lortuko du orain arte lortu ez dituen erantzunak. Beste aldean, historia horren aurrean neutraltasunez eta inolako epaiketarik egin gabe entzungo dionak, norbanakoaren berezko desira topatzen eta aztertzen lagunduko dio.

Sufrimendu psikikoa, ondoeza edo ezinegona, pertsona bakoitzean modu desberdinetan azal daiteke. Esate baterako, batzuek loarekin arazoak izan ditzakete, beste batzuek goibeltasun edo ilunaldi handi bat, indargabe eta triste sentituz; beste batzuetan antsietate handi bat ager daiteke, besteekiko arazoak eragin ditzakeena, errepikapen inkontzienteak, mendekotasunak, elikadura arazoak, ikasketa arazoak, arreta arazoak, somatizazioak eta abar. Beraz, osasuneko beste alorretan bezala, psikologian ere sintomak badira eta horiek ulertzeko eta aztertzeko espezialistarengana joatea oso onuragarria izango da. Ekin eta eman pausoa!

Gizarte Zerbitzuak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU eginen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net** edo **948 564 275 telefonoa.**

objektibo tik

Usolarrainen solstizio ospakizuna: Domekan Jentilak, momotxorroak, Gonagorria, Mari, Mainamikirri sorgina, fara-joleak eta beste pertsonaia mitologikoek bizia hartu zuten, eta, urteko gau luzeenean, eguzkiari deitu zioten iluntasuna gainditzeko: "Mariri deituz bizitza eta gure arimak birsortzeko".

Euskararen sustapena herritarren esku: Ihabarren hasi eta Irurtzunen amaitu zen igandean euskara protagonista izanen zuen lipduba. "Arakildarrak eta irurtzundarrak dira orain euskara kalean bizirik izateko arduradunak", hala adierazi dute lipdubaren gidariak. Astelehenean ikusi ahal izanen da, Kultur Etxean.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza

URBASA-ANDIA ONCEREN TXARTELETAN: Itsuen elkartearen joko txartelak natur parkeen irudiekin ilustratratzen ari dira. Ilbeltzaren 11ko zozketarako banatuko dituen 5,5 milioi txarteletan Urbasa-Andia natur parkearen ilustrazioa agertzen da, saroi batean ardi batzuk ageri direna.

SAKANA

Urte batean biztanleriaren %1,47 galdu dugu

Aurtengo lehen egunean 2013ko egun berean baino 305 sakandar gutxiago geunden, 20.504

2013an aurreko bi urteetako beherako joera hautsi eta 2012rekin alderatuta ibarreko biztanleria 41 pertsonatan igo bazen, aurtengoan, atzera ere, beherako bidea hartu du biztanleriak. 305 sakandar gutxiagorekin ibarreko biztanleria 20.504koa zen urte hasieran. Beraz, Sakana 2005ean lortu zuen 20.000 biztanleren markatik gora mantentzen da. Generoari dagokionez, 10.522 gizonezko (179 eta %1,67 gutxiago) eta 9.982 emakumezko (126 eta %1,25 gutxiago) gara. Ziordian izan ezik herri guztietan gizonezko gehiago bizi dira.

Herrika

Sakanako 15 udalerrietatik lautan bakarrik igo zen biztanleria: Arbizun, Bakaikun, Iturmendin eta Ziordian. Arbizun izan zen igoera handiena, %1,64 gehiago. Bestalde, aurreko bi urteetan behera egin ondoren, joera aldatu da Bakaikun eta Ziordian. Gainontzeko udalerrietan populazioak behera egin du, ehunekoetan jaitsiera nabarmenenak, hala ere, Arruazun (%7,5), Olatzagutian (%4,61), Irurtzunen (%3,35) eta Urdiainen (%3,01) izan dira.

Hamarkada bat atzera

Sakanak 2004an 19.862 biztanle zituen. Hamar urtetan ibarrak 642 biztanle irabazi ditu (%3,23 gehiago). Emakumezko gehiago daude hamarkada baten buruan, 430 (%4,5 gehiago). Gizonezkoen kopuruak ere 212an egin du gora (%2,06). Sakanak dituen 15 udalerrietatik hamar urteetan biztanleria hiruk galdu dute: Ergoiena (50 eta %11,11 gutxiago), Olatzagutia (152 eta %8,92 gutxiago) eta Irurtzun (11 eta %0,49 gutxiago). Gainontzekoetan udalerrietan erroldak gora egin du, nabarmenen ondokoetan: Arbizu (154 eta %15,99 gehiago), Lakuntza (171 eta %15,67 gehiago), Urdiain (57 eta %9,19 gehiago), Arakil (74 eta %8,54 gehiago) eta Uharte Arakil (63 eta %8,12 gehiago).

640.790 nafar

Hirugarren urtez Nafarroak populazioa galdu du. 2013arekin alderatuta 2014ko hasieran Nafarroak 3.687 biztanle gutxiago zituen, %0,58 gutxiago. Emakumezko nafarrak urte hasieran 322.304 ziren (1.240 eta %0,38 gutxiago); gizonezkoak, berriz, 318.468 (2.447 eta %0,76 gutxiago).

Biztanleak

	Guztira 2014	Gizon 2014	Emakume 2014	Guztira 2013	Gizon 2013	Emakume 2013	Guztira aldea 2014-2013	% 2014-2013	Guztira 2004	Gizon 2004	Emakume 2004	Aldea 2014-2004	% 2014-2004
Arakil	941	487	454	959	502	457	-18	-1,88	867	471	396	74	8,54
Irurtzun	2.223	1.153	1.070	2.300	1.197	1.103	-77	-3,35	2.234	1.178	1.056	-11	-0,49
Irañeta	171	96	75	172	95	77	-1	-0,58	165	88	77	6	3,64
Uharte Arakil	839	444	395	851	454	397	-12	-1,41	776	419	357	63	8,12
Arruazu	111	57	54	120	63	57	-9	-7,50	104	57	47	7	6,73
Lakuntza	1.262	653	609	1.277	655	622	-15	-1,17	1.091	563	528	171	15,67
Arbizu	1.117	576	541	1.099	561	538	18	1,64	963	505	458	154	15,99
Ergoiena	400	216	184	406	222	184	-6	-1,48	450	250	200	-50	-11,11
Etxarri Aranatz	2.491	1.291	1.200	2.496	1.289	1.207	-5	-0,20	2.428	1.248	1.180	63	2,59
Bakaiku	336	179	157	331	182	149	5	1,51	333	184	149	3	0,90
Iturmendi	392	202	190	390	198	192	2	0,51	381	199	182	11	2,89
Urdiain	677	352	325	698	368	330	-21	-3,01	620	316	304	57	9,19
Altsasu	7.612	3.836	3.776	7.711	3.898	3.813	-99	-1,28	7.377	3.780	3.597	235	3,19
Olatzagutia	1.552	794	758	1.627	839	788	-75	-4,61	1.704	879	825	-152	-8,92
Ziordia	380	186	194	372	178	194	8	2,15	369	173	196	11	2,98
GUZTIRA	**20.504**	**10.522**	**9.982**	**20.809**	**10.701**	**10.108**	**-305**	**-1,47**	**19.862**	**10.310**	**9.552**	**642**	**3,23**

» Iturmendi

Eskola zaharren erabilera zehazten

Jubilatuendako eta umeendako espazio bana aurreikusi ditu udalak

Arrano Beltza eskolak Iturmendi erdialdea utzi eta Elizazpira aldatu ondoren, makina bat talde izan dira ikastetxe zaharrarekin interesa azaldu dutenak. Victoriano Gabirondo alkateak jakinarazi digunez, besteak beste, Santa Marina jubilatu elkartea, guraso talde bat eta ikastaroetan aritzen direnak jo dute espazio bila udalera.

Alkateak esan digunez, jubilatuekin ikastetxea zena ikusten egon dira eta urte berriarekin batera, atzera ere, haiekin elkartuko dira. Haiendako gela bat uztea aurreikusi du udalak. Bestetik, gaur egun udaletxean haurrendako Biltokia dago. Han adin guztietako haurrak elkartzen dira, baina txikienendako espazio egokiago bat eskatu dute gurasoek. Haiek eta ume txikiak elkarrekin egoteko gela bat uztea ere aurreikusten du udalak.

Banaketa hori eginez gero eraikinaren erdia hutsik geldituko litzatekeela argitu digu alkateak. "Mediku kontsultategia Estafeta kaletik herri erdira noizbait ekarri nahi izan da aspaldi. Horregatik, eskola zaharrean dagoen gela handi bat horretarako erabiliko dugu". Beste gela txiki bat geldituko litzateke erabilera zehazteko.

Ordenantza

Udalak gero eta egoitza eta instalazio gehiago eta gero eta eskakizun gehiago dituela kontuan hartuta, haien erabilera arautu eta tasak ezartzea erabaki zuen. Udaletxeko auzogela eta sabaiko gelez aparte, maisu-maistren etxea (Aritzaga elkartea); konsistorial kaleko etxea (gaztetxea) eta eskola zaharraren erabilera arautzen du.Ordenantza lastailaren 10ean onartu zen.

Gurasoak eta ikasleak dagoeneko ikastetxe berrian elkartzen dira.

» Uharte Arakil

Asteburuetako Gazte txokoa

12 eta 15 urte bitarteko uharteartek badute asteburutan non elkartu. Ikasturte honetan martxan jarri da Gazte Txokoa. Udaletxearen beheko solairuan haiendako espazio bat egokitu da jostailu eta gutxieneko altzariekin. Gaztetxoek hura ostiraletik igandera 16:00etatik 21:00etara erabiltzeko aukera izanen dute. Euren albiziora ibiltzen dira, ez baitago begiralerik. Eurei jarri zaien egiteko bakarra izan da gela txukun eta garbi mantentzea.

Udala, gurasoak, gizarte zerbitzuak eta gazteak biltzen dituen batzorde bat sortu da Gazte Txokoaren kudeaketaz arduratzeko. Gurasoek hartu dute espazioa zabaldu eta ixteko ardura. Bestalde, etorkizunean gizarte zerbitzuak gaztetxoei zuzendutako ikastaroak antolatzeko asmoa azaldu du.

» Ihabar

Ibarreko azken festa

Eguberrikoak kenduta, ostiralean, abenduaren 26an, ihabardarrek festa eguna izanen dute. Donezteb e patroiaren omenezko egunean kontzejuko bajeran bazkaltzera elkartuko dira. Majo bazkaldu ondoren dantzaldia izanen dute. Inauteriekin batera Donezteb e patroiaren festan gehien bat ihabardarrak elkartzen dira ospakizunean.

Ihabardarrak mahaira eserita.

» Altsasu

Maketari jakin-minez begira.

Bisitari ugari tren geltokiaren urteurrenean

Erakusketarako antolakuntzak jasotako dirutik soberan geldi tu zaiena, 625 euro, Josefina Arregi klinikarendako eman du

Altsasuko tren geltokiaren 150. urteurrena dela eta Iortia kultur guneak abenduko 20 egunetan erakusketa hartu du. Asko izan dira erakusketa bisitatu dutenak. Antolatzaileek hura posible egin duten denda eta establezimenduak, Trenaren Altsasuko Lagunen Elkartea, Udaleko Kultura Saila eta Liburutegiari eskerrak eman nahi izan dizkie. Aldi berean, erakusketa prestatzeko jasotako dirutik soberan geldi tu zaiena, 625 euro, Josefina Arregi klinikari ematea erabaki du, "haren funtzionamendua laguntzeko. Alzheimer gaixoekin eta haien senideekin lan bikaina egiten dute".

»

Jolas hezitzaileak

Altsasun, abenduaren 29an eta 30ean, astelehenean eta asteartean, 11:00etatik 20:00etara

Adin guztiendako jolastoki handia bihurtuko da Zelandi kiroldegia Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak antolatuta. Hezkidetza jolasekin batera munduko jolasekin gozatzeko aukera eskainiko da. Gainera, bi egunetan, 12:00etatik 13:00etara birziklatze tailerra eginen da. Norberak eramandako berrerabili daitezkeen materialekin jostailuak egiteko aukera izanen da.

»

Iñaki Romero bekaduna

NUPeko lau ikasleek UNESCO Katedraren Gizarte Behatokia abian jartzeko 6 hilabeteko beka jaso dute. Gizarte Behatokiaren xedea da krisialdiak lan merkatuan eragin dituen ondorioen, ahultasun espazioen, gizarte babeserako sistemen edo partaidetza politikoaren jarraipen dinamikoa egitea ahalbidetuko duten adierazleak edukitzea. Lau ikasleen artean Iñaki Romero Torres altsasuarra dago. Esku-hartze Soziala Gizabanakoekin, Familiekin eta Taldeekin izeneko Masterrean matrikulatutako ikasleei zuzenduta daude La Caixa Fundazioak finantzatzen ditu bekak.

Lakuntzako kultur etxe berria

Jubilatu elkarte berria erabiltzen hasia dago.

Biziz beteriko jubilatu elkartea

Gustura eta pozik daude Gure Nahia jubilatu elkartekoak egoitza berrian. Aurreko egoitzan baino leku zabalagoa dute eta bertan jolasean, solasean baita sukaldean ere aritzen dira noiz hala noiz. Taberna eta jatetxe zerbitzua eskaintzen dute gerturatzen den edonorendako, eta arratsaldetan batez ere sentitzen da jubilatuen presentzia. Mahai jokoen doinuak ez du etenik, eta noizean behin ere txokolatada edota pintxo dastatzeak izaten dituzte. Aurrera begira ere, bi ordenagailu eta sarean nabigatzeko wifi aukera jartzea pentsatu dute eta haurrek jolasteko lekutxo bat gorde dute.

Mari Jose Armendariz, Lakuntzako jubilatuen elkarteko presidenteak jakinarazi ditu datu horiek guztiak. "Gune honen helburua jubilatuen integrazioa eta herri mailako sozializazioa da" adierazi zuen Armendarizek. "Jubilatuen egoitzak eskaintzen duen zerbitzua herritar guztientzat izanen da". Hasiera batean egoitza berrira joateko eragozpenak egon ziren, udalak ez zuen diru adina egoitzako baliabideak behar bezala jartzeko. Hortaz, jubilatuen elkartea akordio batera iritsi zen udalarekin eta haien esku geldi tu zen taberna eta sukaldearen hornikuntza.

Ekintza ugari

217 bazkide dauzka elkarteak, baina aurten egoitza berria dela eta hogei bat bazkide gehiago animatuko direla aipatu du presidenteak. "Gure asmoa elkartea bizirik edukitzea da, oso aberatsa da eta ekintza asko antolatzen ditugu" dio Armendarizek. Urtean zehar mota askotako ekintzak burutzen dituzte elkartean, hala nola, gastronomia dastatzeak, helduen eskola, lentzeria ikastaroa, eskulanak, informatika eta memoria tailerra. Hauexek egoitzan edota herrian bertan burutzen diren ekintzak dira, hala ere udaberria eta udazkena bitartean Lakuntzatik atera eta bidaiak egiten dituzte. Hilabetean behin gutxienez egun bateko txangoak egiten dituzte. Biarritz, Getaria izan dituzte besteak beste helmuga. Baina bidaia luzeagoak egiteko aukera ere badute. Normalean astebete edota luzeagoak diren hiru bidaia egiten dituzte urtean. Dagoeneko Londres edota Lisboa bezalako hiriburuak ezagutu dituzte.

»

Muralez jantzitako eraikina

Eraikinaren kanpoaldeko muralen egilea da Iker Uribe-Etxeberria

"Lan hau egitea proposatu zidatenean eraikin karratu eta mastodontikoa zela iruditu zitzaidan, oso zurruna, harria ere beltza du, horregatik, kolorearekin bizitasuna emanen niola iruditu zitzaidan" zioen egileak. Kolore asko sartu ditu eraikin osoan zehar, kolore oso biziak.

Muralen gaiek esanahi ezberdinak eta anitzak dauzkate, batez ere alde eta paretetan banatzen dira muralak. Sarreran, euskal kultura ageri da, dantzari bat eta albokari baten presentzia ikus daitezke. Parkeari begira dagoen aldean berriz, gitarra-jolea eta neskato bat txori batzuekin ikusi daitezke eta estilo errealista eta abstraktua erabili ditu Uribe-Etxeberriak mural horretan. Beste bi aldeak ezberdinagoak dira, batetik parkeari begira dagoen pareta dago, fantasia marrazki bat irudikatzen duena, oso alaia. Eta azkenik, eskolara begira dagoen horretan mitologiarekin jolastu egiten du, elementu ezberdinak daude bertan, Mari jainkosa edota basajaun baten irudia. "Mural hauen bitartez inguru a pixka bat apurtzen saiatu naiz" adierazi zuen muralgileak.

Lakuntzako kultur etxe berria

Kulturaz herria bizi



Larraitz Amadoz Lazkano

Kultura bultzatu, sustatu, zabaldu eta hedatu nahi duen gune nagusia larunbatean, 18:30ean, mustuko da Lakuntzan

Kultur etxe baten eraikuntza proiektua duela urte batzuk hasi zen. Gaur egun, gauza gutxi batzuk falta dira oso osorik bukatzeko. Asmo hau aurrera eramateko orduan udalak izan dituen zailtasun ugari gainditu egin ditu, horrela Lakuntzak kultur bilgune garrantzitsua dauka egun. Kultur etxeko gune nagusiak, musika eskola, jubilatu elkartea eta areto nagusia dira.

Lakuntzako zinea, herritarrek kultur etxeari deitzen dioten eraikinaren proiektua duela zortzi urte hasi zen. Hasiera batean, zaharberritzeko asmoa zegoen soilik, baina udalak proiektu aproposago bat sortzea erabaki zuen herritarren beharrizanei erreparatuz. Udalak Espainiako Gobernuaren onarpena jaso ondoren batzar ugari egin zituen herritarrekin kultur etxearen erabilera adosteko. 2012ko ilbeltzean hasi ziren lehen pausoak ematen, zazpi hilabeteko epea eman zieten obra osorik bukatzeko.

Garagarrila bitartean lanean jardun zuten, baina Espainiako Gobernuak eraikuntzaren obra geldiarazteko agindua eman zuen, dirurik ez zutelako. Urte bat geldirik egon ondoren, inguruko urbanizazioan eragina izan zuen, batik bat haurren jolas parkean eta eskolan. Egoera horren aurrean udalak Nafarroako Gobernuarengana jo zuen eta hasitako obrak bukatzeko eskakizuna egin zuen. Larrialdi egoera izanik, berriz ere obra bukatzeko baimena eman zieten. Lehenik, inguruko urbanizazioa egin zuten eta ondoren kultur etxearena.

Banaketa

Oihane Uribe-Etxeberria zinegotziak hauxe adierazi zuen "zerbitzu gehiago eskaini nahi ziren eraikin berriaren proiektuarekin eta horregatik adibidez jubilatu elkarteak taberna eta jatetxea eskaintzen ditu". "Beheko solairuari dagokionez areto nagusia bertan kokatzen da eta baita jubilatuen elkartea ere". Goiko aldean berriz, San Saastin musika eskola eta 140 m²-ko gela bat daudela adierazi zuen zinegotziak. "Gela horretan hainbat ekintza egiten dituzte: yoga, dantza ikastaroak, antzerki tailerra". Dena dela, oraindik lan asko egiteko dagoela aipatu zuen Uribe-Etxeberriak, hala nola, musika eskolako sabaien hots-gabetzea, jubilatuen elkartean ere ordaintzeko diru kantitate bat falta da eta areto nagusian oinarrizko baliabideak behar dira.

Bestalde, herrian kultur bilgune eta kontseilu komun bat sortu nahi da udalaren aldetik eta horretan martxan jarri dira dagoeneko. "Eraikuntza horren erabilera publikoa da eta parte hartzea sustatu egin nahi dugu" zioen Oihane Uribe-Etxeberriak. Horretarako, jendea mugiarazi nahi dute herri mailan lan egitera kultur bilgune horrek bizitasuna izan dezan.

Udalak baliabideak eta laguntza emanen ditu baina herritarren presentzia ezinbestekoa ikusten du eraikinaren erabilera aurrera ateratzeko. Hala, pare bat bilera egin dituzte herriko eragile eta gerturatu diren herritarrekin. Bilera horien helburua herri mailako kultur kontseilu bat sortzea izanen litzateke. Herrian antolatuta dauden eragileen bilgune eta topaleku bihurtuko litzateke eta indarrak biltzea izanen litzateke udalaren asmoa. "Herria kultur etxe handi bat da eta kontseilu hori eragile guztiek egiten duten lana bateratzeko tresna gisa erabili nahi dugu" adierazi zuen zinegotziak

Larunbatean egun guztian ate irekiak izanen dira, eraikin guztia bisitatzeko. Gainera, Lakuntzako artisten lanen erakusketa ikusgai izanen da. Lakuntzarrak gonbidatu dituzte guztien artean artelana sortzeko. 18:30ean ekitaldia eta gero auzatea izanen da.

Musikaren doinua

Zer da kultura musikarik gabe? Lakuntzako kultur etxeak ezin dio ukatu presentzia musikari, goiko solairuan gitarra edota tronpeta doinuak maiz entzuten dira arratsaldeetan. Duela bi hilabete gutxi gorabehera egin zuten aldaketa, lehenago udaletxeko goiko aldean zegoen kokatuta San Saastin musika eskola. Luisvi Jimenez musika eskolako zuzendaria oso ongi sentitzen da leku berrian, "argi asko dute gela berriek eta espazio zabala dugu musika irakasteko". "Akats bakarra sabaien hots-gabetzearena izanen litzateke baina bestela oso pozik gaude musika eskola berriarekin" adierazi zuen Jimenezek.

Aurreko egoitzan baino gela gehiago dauzkate kultur etxean eta horrek lana errazten die, lehenago gela batzuk partekatu behar zituztelako. Sei gela dauzkate, eta instrumentu bakoitza protagonista da gela ezberdinetan. Instrumentu hauek eskaintzen dituzte: pianoa, gitarra, bateria, tronpeta, txistua eta akordeoia. Bakarkako ekintzak egiten dituzte eta beste batzuetan, berriz, taldekako klaseak ematen dituzte.



» Irurtzun / Altsasu

Urte berriak auzo-konposta ekarriko du

Sakanako Mankomunitateak Irurtzunen eta Altsasun auzo-konpostagailuak jartzeko bi udalekin akordioak itxi ditu. Lakuntzan probatutako Vermican enpresako auzo-konpostagailu eredu modularra jarriko da bi herrietan. Mank-eko Hondakin Zerbitzuko arduradun Olatz Garde Mazkiaranek esan digunez, "erabiltzeko erosoagoak dira. Gainera, prozesua azkarrago egiten da tenperatura altuagoak lortzen direlako".

Lakuntzan probaldian egon den auzo-konpostagailua. Irurtzunen eta Altsasun halakoak jarriko dira.

Irurtzun

Irurtzunen zortzi auzo-konpostgune izanen dira: Bihaizpe, Aralar Intxaurreta, Herria, Kiroldegia, Aldapa, San Migel eta Berria kaleetan. Haiek kokatzeko urbanizazio lanak despedituta urte akaberan hasiko dira auzo-konpostagailuak muntatzen. 12 metro karratuko espazioa egokitu dute (4x3) eta hartan 6 metro kubiko gaitasuna duten auzo-konpostagailuak jarriko dira. Salbuespena Aldapa kalekoa izanen da, 3 metro kubikokoa izanen dena.

150 irurtzundarrek eman dute izena haiek erabiltzeko. "Haiekin harremanetan jarriko gara, erabiltzen hasi aurretik informazio kanpaina, ikastaroak, egin behar dugulako", azaldu digu Gardek. Auzo-konpostagailuak otsaila hasieran mustuko dituztela jakinarazi digu. "Hasieran jende kopuru horrekin hasiko gara, eta dena ondo badoa jende gehiagori zabalduko diogu aukera".

Altsasu

Altsasuarren eskaerari erantzunez 6 metro kubikoko bi auzo-konpostagailu jarriko dira. Bata, Aralar eta Amaia kaleen bidegurutze ondoan, Navarro Villoslada ikastetxea zenaren ondoan. Bestea, berriz, Otain, Kaltzada, Amadrea eta Uhaldera kaleen arteko berdegunean. Irurtzunen bezala, ilbeltzean zehar, interesa azaldu duten altsasuarrekin harremanetan jarriko dira Mank-eko Hondakinen Zerbitzuko hezitzaileak, ikastaroak egin eta otsailean mustu ahal izateko.

» Etxarri Aranatz / Altsasu

Bi enpresarendako aitortza

Enpresen gizarte ardura arloan emandako urratsengatik diploma jaso dute Inox Naparrak eta Jatormanek

Euren kudeaketa modeloan gizarte eta ingurumen balioak dituzten neurriak hartu eta planak ezartzeagatik Nafarroako 29 enpresak aitortza jaso zuten ostiralean. Lourdes Goikoetxea kontseilariak enpresek hartutako neurriekin gizartean duten eragina bere egiten dutela adierazi zuen. Enpresen gizarte arduraren garrantzia azpimarratu zuen Goikoetxeak, "lehiakortasuna handitu dezakeelako arriskuen kudeaketan, kostuen aurrezpenean, kapitala eskuratzeko, bezeroekiko harremana, giza baliabideen kudeaketan eta berrikuntza gaitasunean onurak ekar ditzakeelako".

Enpresa Gizarte Ardura diploma banaketa. NAFARROAKO GOBERNUA

SAKANA

Adostasunik ez Autopista Elektrikorik Ez plataformaren eta gobernuaren arteko bileran

Foru administrazioak Deikaztelu-Itsaso argindar lineari ematen dion babesa "behar errealek ez dute justifikatzen, multinazionalek euren gehiegizko energia ekoizpena esportatzeko besterik ez da"

Sakanan barna, Deikaztelu eta Itsaso artean egin nahi den argindar linearen kontrako plataformako eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak estreinakoz astelehenean elkartu ziren. Plataformako ordezkarien artean Lurrako buruarekin, Oltzako Zendeako eta Deikazteluko alkateekin batera Garazi Urrestarazu Altsasuko alkatea zegoen. Harrera Lourdes Goikoetxea kontseilariak eta gobernuko ingurumen eta industria zuzendariak egin zieten.

Plataformak jakin nahi zuen Nafarroako Gobernuak zein iritzi duen Industria Ministerioaren 2015-2020 energia plangintzari buruz. Goikoetxeak proiektuari babesa azaldu zion, baina plataformako kideek azaldu dutenez, "ez du zehaztu zergatik behar den proiektua; zehaztu gabe etorkizuneko hazkundeak eta energia ateratzeko premia aipatu ditu".

Argindar linearen kontrako plataformako kideak batzar baten aurretik.

Ministerioaren egitasmoak egun dauden bi argindar lineei potentzia handitzea aurreikusten duela aipatu zioten, "gobernuak aipatzen dituen beharrak asetzeko nahiko". 400 kV-eko linea berriak osasunaren eta lurraldearen gaineko eragina areagotuko duela nabarmendu zuten. "Argindar linea berria ez da Nafarroaren hornidura beharrendako, baizik eta Espainia eta Frantzia arteko argindar garraioa egiteko".

Manifestua

Argindar linearen kontrakoek kontseilariari herri borondatea errespetatuko duen bide demokratiko baten aldeko manifestua eman zioten. Hartan gobernuari eskatu diote argindar linea ez dezatela planifikazio elektriko berrian sartu. Idatzia kaltetutako herrietako 247 udal ordezkarik eta gizarte taldek babesten dute. Goikoetxeari ere gogorarazi ziote argindar linea berriko proiektuak ukitutako 220 udal eta kontzeju kontra daudela.

» Dorrao

Dagoenari eusteko aurrekontua

Azaroaren 3an egindako bilkuran Dorraoko Kontzejuak heldu den urteko aurrekontua onartu zuen. 51.600 euro izanen ditu kontzejuak kudeatzeko. Pedro Diez de Ultzurrunek azaldu digunez, baso-lantegietatik edo larreetatik dirua ateraz gero mantenu lanetara (bideak edo bestelako matxurak konpondu) bideratuko litzateke.

» Olatzagutia

Hilerrirako ordenantza

Olatzagutiko Udalak hilerria kudeaketa arautzen duen ordenantza onartu du. Araudi berrian jasotakoaren arabera ez da lurrean ehorzteko aukerarik izanen. Soilik horma-hilobiak edo errauts-kutxategiak egonen dira. Horiek erabiltzeko 15 urteko epea emanen du udalak (ezin izanen da luzatu). Lehenengatik 50 euro ordaindu beharko dira, bigarrenenen erabilera, berriz, doakoa da.

Hilerriko ordenantzan jasotakoaren arabera, panteoian lur ematearen kostua hildakoaren familiaren kontura izanen da. Hilerriaren barnean ez da inolako espazio berezirik gordeko, legeek debekatutako bereizketa ekar dezaketen ehorzketak egiteko. Eta hilarrietako testuak edozein hizkuntzatan jartzeko aukera ematen du.

ESKOLA

Abenduaren 8az geroztik Olatzagutiko eskola publikoak ez du oztopo arkitektonikorik, igogailua mustu baitu. Ikastetxearen atzeko aldean jarri da eta hiru solairuetara igotzeko aukera emanen diren irisgarritasun arazoak dituztenei. Udalak 63.235 euroko inbertsioa egin du eta haietatik 23.832 Nafarroako Gobernutik jaso du.

Bestalde, Gurutze Rodriguez alkateak esan digunez, udalak Olatzagutiko Gazte Asanbladari Maixuenea gaztetxea erabiltzeko lagapen akordioa idatziz jasoko dutela. Orain arte hitzezko lagapena zen. Bi aldeak akordioa zehazteko elkartuko direla azaldu digu alkateak.

» Altsasu / Olatzagutia

Sunsundeguin aukeratu dituzte langileen ordezkariak

UGT sindikatuak jakinarazi duenez, haiek izan dira Sunsundeguin langile ordezkari gehien lortu duen indarra, 4. ELAk 3 eskuratu ditu eta LABek 2. Oraingo bederatzien aldean, aurreko enpresa batzordean 13 kide zeuden. Hartan UGTk 5 ordezkari zituen, ELAk 5 eta LABk 3.

Bestalde, CCOOk jakinarazi du Olatzagutiko Canteras Aldoyar enpresako langileen ordezkaria bere sindikatukoa izanen dela.

» Irurtzun / Altsasu

Bost etxarriarretik lau ongi moldatu da hondakin bilketa berriarekin

18 urtetik gorako etxarriarren %17,9k eman dute iritzia udalak prestatutako galdetegiaren bidez

Etxarri Aranazko Udalak hondakin bilketa sistema berriaren inguruan herritarren iritzia eta proposamenak jasotzeko galdera sorta bat zabaldu zuen azaroan. Joxi Bakaikoa alkateak astelehenean jakinarazi zuenez, "oro har esan daiteke etxarriar gehienak (bostetik lau) sistema berriarekin ongi moldatu direla, eta ados daudela sistema berriarekin. Baina egindako ekarpenak ere asko izan dira, eta hobetu beharrekoak ere bai".

Galdetegiko emaitzen aurkezpenean alkateak aldamenean izan zituen Arantxa Artieda NaBaiko zinegotzia, Jon Gartziandia Hondakinen Batzordeko Jon Garziandia eta galdeketa egin duen Aztiker enpresako Asier Etxenike. Aurreratu zutenez, "emaitzen txostena Sakanako Mankomunitateari aurkeztuko diogu, hemendik aurrerako jardunbide eta erabakietan etxarriarren iritzia kontuan har dezan, eta sistema hobetzeko egindako ekarpenak gauzatu ditzan".

Asteleheneko aurkezpenean ez zituzten galdetegiko emaitzak baloratu nahi izan. Hala ere, Bakaikoak esan zuenez, "hondakin bilketa sistema aldaketan urrats handia izan da eman duguna, baina asko dago egiteko eta hobetzeko oraindik. Eta bide horretan aurrera egiteko, motibatuta eta inplikatuta ikusten ditugu etxarriarrak".

Jon Garziandia, Joxi Bakaikoa, Asier Etxenike eta Arantxa Artieda datuak aurkezteko prentsaurrekoa.

Galdetegia

Bost ataletan banatutako 17 galdera zituen galdetegiak. Aurreneko atala etxarriarren orain arteko esperientzia baloratzeko zen. %78,8 ongi moldatu da sistema berrira, eta %71,5ek lehen baino gehiago birziklatzen duela esan du. Aldi berean, etxean hondakinak gaika antolatzen ongi moldatzen direla diote etxarriarren %77,8k. Bilketa ordutegiekin %74,8 ongi moldatzen dela jakinarazi du. Auzo-konpostagailua erabiltzen dutenen %72,5 ongi moldatzen dira. Erdiak baino gehiagok, %57,4k, astean bizpahirutan erabiltzen dute auzo-konpostagailua. Larrialdi gunearen antolaketaz 537,3k ez du erantzunik eman eta antzeko portzentajean, %26, funtzionamendu ona edo hobetu daitekeela diote. Bestetik, garbigune zerbitzuaren balorazio ona egin dute %45,7k, baina hobetu daitekeela gaineratu dute %31k. Zintzilikarioetan pertzak derrigorrezko izatearen aldeko %40,1 agertu dira. Poltsak ere onartzearen alde, aldiz, %54,1.

Hondakineko kezkaren inguruan galdetu zen bigarren atalean. Inkesta erantzun dutenen %86,9ren iritziz hondakinena arazo larria da. Gaur egun Nafarroan indarrean dagoen hondakinen kudeaketa sistema aldatzearen alde %70,2 agertu da, beste %15,1ek ez du erantzunik eman. Atez ateko sistema duten herrietan tasa txikiagoa ordaindu beharko litzatekeela esan dute erantzun dutenen %82,9ak.

Hondakin bilketa sistema berria aurrera eramateko jasotako informazioaren inguruko balorazioa eskatu zen galdetegiaren hirugarren atalean. Mank-ek eta udalak emandako informazioari buruzko iritzi ona dute parte-hartzaileen %70,1k. Galdetegiaren azken atalak lortutako emaitzen inguruko iritzia ematea eskatzen zien etxarriarrei. Eta arlo horretan erantzun dutenen %82,1ek egindako ahaleginak merezi duela uste du, beste %13k oraindik ez du argi. Behin probatu ondoren, sistema berriari buruz duten iritzia %50,2ri hobetu zaio eta %46,1i berdintsu mantendu zaio. Azkenik, %62,4 orokorrean sistemarekin konforme dago; %19,4k beste sistema bat nahiago du eta %18,2a sistema berriarekin konforme dago baina aldaketaren bat eginen lioke.

Parte hartzeaz

416 etxarriarrek (%17,9) erantzun dute galdetegia. 31 urtetik aurrerakoak izan dira galdeketan gehien erantzun dutenak. Inkesta gehien emakumezkoek erantzun dituzte, %56,7k; parte hartu duten gizonezkoak %43,3 izan dira. Batzordeko kideek esan zutenez, "jende askok ez du erantzun. Nahiago genukeen denek edo gehienek erantzun izan balute, denen iritzia interesatzen zaigulako". Galdetegiaren nolakotasuna kontuan izanda, parte hartzea "esanguratsua" izan zela adierazi zuten. Bestetik, batzordekideek ohartarazi zuten etxe askotan familia unitate bezala erantzun dutela: "bakar batek erantzun du (etxeko hondakinen arduradunak) familiaren izenean". Aldi berean, parte hartu ez dutenei erreparatu diete: "etxarriar askok ez du erantzuteko premiarik ikusi, eta gaia ez dute liskarrez bizi. Zabor bilketaren gaiari dagokionez ondorioztatzen da herrian lasaitasun handia dagoela".

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)
TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA
www.tanatoriosirache.com

Celestina Jaca Iraurgui
« Xele »

I. urteurrena

Bihotzez maite izan zintugun
Bihotzez zaindu zintugun
Eta bihotzean eramaten zaitugu

I. urteurreneko meza: Abenduaren 25ean, eguerdiko 12:00etan, Etxarri Aranazko elizan.

Maria Alegria Alegria

Itxen atzekaldien
pasatutako ordubek
beti izanen ttu guki.

Itxekuek

Lakuntzan, 2014ko abenduaren 18an.

Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Apartamentua alokatzen da. Altsasun. Jantzita. Hots egin 660 87 75 00 telefonora eguerdian edo 19:00etatik aurrera.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Haur silleta. Euritik babesteko plastikoa galdu nuen Arbizun. Telefonoa 667 26 67 46.

Ikastaroak

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Oharrak

Elkartrukea. Ingeles mintza. Maila ertain edo goraxeagokoa baduzu eta langilea bazara –ez ikasleentzat- ingeles herdoildu hori taldean askatzeko. Aingeru 685 47 46 82.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xaloa telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruñerrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakrak liburudendan (kale Nagusia 54).

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki sarituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartean sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea. Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik.
Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

HERIOTZAK

- **Javier Lakuntza Artieda,** abenduaren 7an Uharte Arakilen.
- **Maria Alegria Alegria,** abenduaren 18an Lakuntzan.
- **Francisca Blazquez Izquierdo,** abenduaren 20an Altsasun.
- **Luis Churio Huarte,** abenduaren 20an Irurtzunen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

AIZKORA

ERDOZIA-BELTZA LANERA: Larunbatean hasiko da Zilarrezko Binakako Aizkora Txapelketa, Erronkari-Salazarreko Orhi pilotalekuan, 12:00etan. Ondoko bikoak ariko dira: Daniel Vicente-Iker Vicente, Pellejero-Telletxea eta Juanjo Erdozia-Goizeder Beltza.

kirola >>

Txirrindularitza

Urteko azken egunari agur bizikletan

Sociedad Deportiva Alsasuak antolatuta, 2014ko San Silbestrea-32. Urbasa Igoera izanen da abenduaren 31n, 15:45ean

Sociedad Deportiva Alsasuak Altsasuko Udalaren laguntzarekin eta hainbat komertzioren babesarekin antolatutako San Silbestre bizikleta martxak 32. edizioa hartuko du aurten. Proba 15:45ean hasiko dute zikloturistek. Urtea despeditzeko proba polita da txirrindulariendako. Gehienen asmoa ongi pasatzea da, baina badago lehiatzera doanik ere.

URBASARA ALTSASUTIK

Urbasako igoera Altsasutik egingo da, eta txirrindulariek Urbasako tontorrera heldu beharko dute. Igo ondoren salda beroa hartzeko aukera izango da, gorputza berotzeko. Proba despeditu eta gero, Sociedad Deportivako tabernan oroigarri bat jasoko dute txirrindulariek, dortsala bueltatzerakoan. Bertan eginen da sari banaketa ere, 17:30ean.

IZEN EMATEA

Proba hasi baino lehen Sociedad Deportiva Alsasuan. Federatuek 7 euro eta federatu gabekoek 10 euro ordaindu beharko dituzte.



Iaz 75 txirrindulari aritu ziren.

Atletismoa

2014 urteari agur KORRIKAN

36. SAN SILBESTREA JOKATUKO DA ALTSASUN ETA 13. LASTERKETA OLATZAGUTIAN

2014 urtea korrikan despedituko dute sakandar askok. Gure korrikalariendako, akaso, proba herrikoienak eta gertukoenak dira San Silbestreak. Sakanan bi ditugu. Aurten 36. edizioa beteko du Altsasuko San Silbestreak, eta Olaztiko probak, aldiz, 13. edizioa beteko du.

Oso animatua izaten da Altsasuko San Silbestrea, Nafarroako zaharrena.

Altsasuko San Silbestrea, Nafarroako zaharrena

Dantzaleku-Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, aurten 36. edizioa beteko du Nafarroako proba beteranoena denak. Aipatu proba Mario Memoriala izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen Mario Lopez de Uralde korrikalari altsasuarraren omenez.

Haurrak 18:00etan eta helduak 19:00etan

Abenduaren 31n, asteazkenarekin, 18:00etan emanen diote hasiera lasterketari, gaztetxoenen lasterketarekin. Aurrebenjaminak (400 m), benjaminak (800 m) eta kimuak (1.200 m) ariko dira, plazatik abiatuta eurendako propio prestatutako distantzia osatzen. Berrikuntza moduan, haurren kategoriakoek helduenean parte hartzeko aukera izango dute, zirkuituari buelta bat eman eta kiosko aldera ateraz, euren denbora hartzeko (1,5 km). Ondoren, helduen proba guztia osatu nahi badute, aurrera jarraitu dezakete.

Kadeteak, jubenilak, seniorrak eta beteranoak 19:00etan udaletxe aurretik abiatuko den proba nagusian ariko dira. Korrikalariek Altsasun barna prestatutako zirkuituari hiru buelta eman beharko dizkiote, guztira 5 km metro osatuz. Foruen Plazan egongo da helmuga. Probako lehen hiru gizonezkoek eta emakumezkoek trofeoa jasoko dute, eta lehendabizikoek txapelak. Bestalde, aurretik izena internetez ematen dutenen artean sariak zozketatuko dira.

500eko erronka

Antolatzaileek urtea korrika egiten despeditzera animatu dute. Euren esanetan, lasterketarik herrikoiena da San Silbestrea, proba ederra. Aurreko urtean 544 korrikalari aritu ziren, kategoria txikietan 113 neska-mutiko eta helduetan 431. Sergio Garcia de Eulate eta Maite Beregaña izan ziren azkarrenak. Ea aurten ere 500 korrikalarien erronka gainditzen den.

Izena emateko: www.dantzalekusakana.com

Izena ematea dohainik da, eta web gunean izena emateko gomendioa egin du Dantzaleku Sakanak. Bestela, egunean bertan izena emateko aukera egongo da, 18:30ak arte.

Paris 365 jantoki sozialarendako elikagaiak bilduko dira

Gaizkien pasatzen direnekin gogoratuta, Gure Etxean kaxa erraldoiak jarriko dituzte, eta San Silbestrea jarraitzea datozenei eta korrikalariei elikagai iraunkorrak ekartzeko gonbitea egin die klubak. Jasotakoa Paris 365 jantoki sozialari emango zaie.

Kategoria ezberdinak **Olaztin**

San Silbestre lasterketaren 13. edizioa jokatuko da urteko azken egunean Olatzagutian, 18:00etan, Sutegi elkarteak antolatuta. 4 kategoriendako lasterketak antolatu dituzte: txikiak, 7 urtera artekoak (300 m), 8-11 urte bitartekoak (600 m), 12-15 urte artekoak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak. Kasu honetan herri gunean antolatutako zirkuituari 4 bira eman beharko diete korrikalariek, 5 km osatzeko. Proba 18:00etan hasiko da, eta frontoia izango du irteera eta helmuga. Proban izena eman nahi duenak lasterketa aurretik irteeran jarritako mahaitik pasa beharko du, 17:00etatik aurrera. Giro polita izaten da proban, eta bukaeran sariak eta opariak banatuko dira. Aurreko urtean 102 korrikalari lehiatu zirenguztira. Helduen proban Raul Audikana eta Sarai Garasa nagusitu ziren.

PPSOE,
ETB digitala
Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

GANUZA SUKALDEAK
Sukalderako altzariak
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak
Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuza@cocinasganuza.com
www.cocinasganuza.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

xapatero taberna
948 460 162
Etxarri-Aranatz

Mendi lasterketak

Aritz Munarriz 9.a Huescako Pico del Aguilan

115 korrikalarien artean Kiko Navarro nagusitu zen

Larunbatean III. Turron Skyrace Pico del Aguila lasterketa bertikala jokatu zen Huescan. 115 korrikalari lehiatu ziren eta Kiko Navarro izan zen azkarrena (26:40). Kronometratutako proban Aritz Munarriz etxarriarrak lan bikaina egin zuen eta 9. denbora onenean geratu zuen kronometroa (30:13). Antonio Salgado beterano altsasuarrak ere lan ederra egin zuen eta 64. postuan sailkatu zen (39:45).

Aritz Pirinioetako proban.

Espeleologia

Kobazuloak, espeleologoen begiekin

Laurent Richarden hitzaldi-proiekzioa abenduaren 26an, ostiralean, 19:00etan, Arbizuko kiroldegiko tabernan

Laurent Richard espeleologoak "Montañas embarazadas" bere liburua aurkeztuko du abenduaren 26an, ostiralean, 19:00etan Arbizuko kiroldegiko tabernan eskainiko duen hitzaldian. "Kobazuloak, espeleologoen begiekin" titulua eman dio hitzaldi-proiekzioari.

Liburuan Richardek bere espeleologia bizipenei buruzko 13 kontakizun kontatzen ditu. "Ez ditut egindako irteera arrakastatsuenak kontatu, oroitzapen berezienak baizik. Izan ere, ez da liburu tekniko bat, literatura lana baizik. Egindako irteeratan sorturiko sentimenduak azaltzen saiatzen naiz: jakin mina, zentzugabekeriak, beldurrak, sormena, askatasuna, adiskidetasuna, ustekabeak... Horregatik pentsatzen dut mendiak haurdun daudela: batetik, espeleologoek ezagutu gabeko kobaz beterik daudelako, eta, bestetik, kobek espeleologoengan bizipen eta ikuspegi ezberdinak sortzen dituztelako" azaldu du Laurent Richardek. Espeleologoak gaineratu duenez, bere liburuan ondoko galde-erantzuna egiten saiatu da: "Zergatik sartzen gara espeleologoak kobetan? Sentitzen eta bizitzen dugunagatik, ez egiten dugunagatik.

Hitzaldi-proiekzioan Euskal Herriko eta munduko kobei buruzko irudiak erakutsiko ditu Richardek. Bide batez, Arbizuko kiroldegiko tabernan hainbat argazki jarri ditu ikusgai.

Mendia

Agur 2014 eta ongi etorri 2015, mendian

Mendizale askok urte bukaera eta hasiera mendietan ospatuko dituzte

Urtea bukatu eta hasteko modu asko daude. Tartean gurean oso hedatua dago egun seinalatu horietan mendira jotzea, tontor garaietatik urtea joaten ikusteko edo urteari ongi etorria emateko. Sakanako mendizaleek, jakina, bat egingo dute ohitura honekin.

Urtea despeditzeko Aizkorri, Trinitatea eta Aralar dira ohikoenak. Lakuntzarrek Aralar aldera joko dute, Lakuntzaskoarrira. Eta urteari ongi etorria egiteko askok Aralarko San Migelera, Beriainera eta beste joko dute. Bestalde, Errege Egunean Sakanako Mendizaleek Beriain itzotzeko ohitura dute.

Mendizalez bete zen Aralar

50. Mendigoizaleen egunean ezin zen gutxiagorik izan. Igandean mendizaleek ez zuten huts egin eta goiz osoan mendizaleen joan etorria handia izan zen Aralarko Mikel Deuna santutegiaren inguruan. Oinezkoak izan ziren gehienak,korrika igo zirenak ere bai eta bizikleta gainean beste hainbat. Autoz eta autobusez ere jendetza izan zen. Erromeria gainera,abenduan gaudela kontuan hartuta epel joan zen. Meza, auzatea, musika eta festa ez ziren falta izan.

Non

Trinitatea. Abenduaren 31n, asteazkenean, Irurtzundik, 9:00etan. Irurtzungo Iratxo eta Pikuxar elkarteak antolatuta, txokolatada eta Trinitatera igoera. Aurten 9. edizioa izango da. Iratxo mendi taldeko finalista eguna izanen da.

Aizkorri. Abenduaren 31n, asteazkenean. Altsasuko Mendigoizaleek eta Olaztiko Sutegik deituta.

Lakuntzaskoarri. Zabalarte mendi elkarteak antolatuta, abenduaren 31n, asteazkenarekin, V. Lakuntza-Eskuarri igoera eginen da. Irteera goizeko 8:30ean, plazatik. Hamaiketakoa eginen dute.

Beriain. Ilbeltzaren 6an, astearte an, 9:00etan Unanutik. Sakanako Mendizaleak taldeak antolatuta, Errege Egunean urtero egin ohi duten bezala.

Bargagain. Ilbeltzaren 4an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleek antolatuta. Urteko lehen igandean Bargagainera jotzen dute altsasuarrek, 8:00etan aterata. Goian hamaiketakoa eta festatxoa.

Pala

Palista onenen txanda

Larunbatean IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalak jokatuko dira, 9:30ean hasita, Etxarri Aranatzen

26 bikote lehiatu dira IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketan. Ligaxka eta finalerdien ondoren, final handien txanda iritsi da. Finalak larunbatean jokatuko dira, goizeko 9:30ean hasita, Etxarri Aranazko Euskalerriari pilotalekuan. Guztira 7 final daude jokoan, eta bukaeran sari banaketa izanen da. Ondoren palistak bazkaltzera bilduko dira. Txapelketa antolatu ahal izateko zare baten zozketa eginen da frontoian. Zare berezia, tablet bat zozketatuko baita.

Finalak

Benjaminak:
Maria-Ane / Julene-Olaia
Kimuak:
Maddi-Irantzu / Elorri-Ane
Haurrak:
Uxue-Ainhoa / Saioa-Amaiur
Kadeteak:
Irati-Aroa / Oihane-Naroa
Gazteak:
Ane-Irati / Leire-Igone
Helduen 2. maila:
Andrea-Izar / Uxue-Uxue
Helduen 1. maila
Ainhoa-Maddi / Amaia-Nagore

Txirrindularitza

Azanzaren lehen entrenamendua

Jorge Azanza txirrindulari ohia Fundación Ciclista Euskadi talde amateurreko kirol zuzendaria da. Bere facebook profilean azaldu duenez, igandean bere lehendabiziko entrenamendua zuzendu zuen Sakanan eta inguruetan. "Oso kontentu nago txirrindularien jarrera rekin eta eurekin egindako testek izan duten emaitzarekin. Hemendik aurrera erritmoa gogortzen hasiko gara" aipatu zuen.

Areto futbola

12+12 areto futbol txapelketa Irurtzunen

La Guan taldeak antolatuta, larunbatean eta igandean jokatuko da, Irurtzungo kiroldegian

Irurtzungo kiroldegiak 12+12 orduko areto futbol txapelketa hartuko du asteburuan. Irurtzungo La Guan taldeak antolatu du txapelketa, azken urtetan Gabonetan egiten duen moduan. Txapelketa larunbatean hasiko da, goizeko 9:00etan eta 22:00etara arte luzatuko da. Igande goizean ekingo zaio berriro txapelketari, 10:00etan.

INGURUKOAK

Izena eman duten taldeak multzotan banatuta ariko dira, eta multzo bakoitzeko onenak pasako dira final laurdenetara. Ondoren jokatuko dira final handiak. Lehiatuko diren taldeak sakandarrak, Lekunberri eta Larraun aldekoak eta Iruñerrikoak dira.

Partidak jokatu bitartean zerbait hartzeko aukera izango da kiroldegian. Horretaz gain, Gabonetako zarea zozketatuko da. Txapeldunendako sari ederrak izango dira.

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

14. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 2 – AVANCE EZKABARTE 1
Merezitako garaipena lortu zuen igandean Lagun Arteak etxean, Avance Ezkabarteri 2-1 irabazita. Gauzak ez ziren ongi hasi, Avance 5. minuturako aurreratu baitzen, baina egoerari buelta ematen jakin zuen Lagunek. Bigarren zatian Gasco gehiago aurreratu zen eta Burillo eskuinaldeko hegal moduan kokatu zuen Claver entrenatzaileak. Aldaketak ongi etorri ziren, Lagun jaun eta jabe egin baitzen. Unanuak berdindu zuen eta azken minutuan Unai Bakaikoak garaipenaren gola sartu zuen. 3 puntuekin arnasa hartu dute lakuntzarrek.

Sailkapena >>

1.	Mendi	34 p
11.	Lagun Artea	15 p

Asteburuko jardunaldia

BERIAIN – LAGUN ARTEA
(Ilbeltzaren bigarren asteburuan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

15. JARDUNALDIA

BERRIOZAR 0 – ETXARRI ARANATZ 2
ALTSASU 4 – BETI KOZKOR 1
Erregional mailan dabiltzan bi talde sakandarrek bikain despedituko dute urtea. Etxarrik lider jarraitzen du, gutxinaka atzekoenganako tartea handituz, eta Altsasu 8. postura igo da.
Berriozarri 0-2 irabazi zion Etxarrik. Berriozar indartsu atera zen, baina ez zuen etxarriarren atean arriskurik sortu. Gutxinaka Etxarrik hartu zuen partidaren kontrola. Xabaten jokaldi on baten ondorioz Pablok lehen gola sartu zuen. bigarren zatian, Xabatek Etxarriren bigarren gola sartu zuen, faltaz.
Bestalde, Dantzalekun jokatutako partida guztian eroso aritu ziren altsasuarrak. Saezek eta Beramendik sartutako golekin despeditu zen lehen zatia. Bigarrenean, Saezek, berriro eta Xabi Lopezek kontrako atean asmatu zuten. 3 puntu zoragarri.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	37 p
8.	Altsasu	24 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ – ARDOI B
HUARTE – ALTSASU
(Ilbeltzeko bigarren asteburuan)

Areto futbola

Etxeko lanak egin ditu Magnak

Sailkapenean zazpigarrenak dira irurtzundarrak, Espainiako Koparako sailkatuak

Magna Nafarroa Xotak etxeko lanak eginda despeditu du lehen mailako txapelketako lehendabiziko buelta. Ostiralean Jaenen kontra jokatutako partidan bina berdindu zuen Magnak. Irurtzundarrek 7. postuari eutsi diote eta martxoan jokatuko den Espainiako Koparako sailkatu dira. "Partida ona egin dugu baina bigarren zatian Jaenek gehiago estutu gaitu" nabarmendu zuen Arregik.

HURRENAK: SANTIAGO ETA RIVERA NAVARRA

Ilbeltzaren 3an Magnak Santiagon jokatuko du, Santiago Futsalen kontra, eta ilbeltzaren 10ean bi talde nafarren arteko derbia jokatuko da Anaitasunan: Magnak Erriberako Aspil Vidal Rivera Navarra taldea hartuko du.

Pilota

Garaipenarekin hasi dute txapelketa

Ezkurdiak eta Zabaletak Irujo eta Barriola ederki estutu zituzten.

Binakakoa.
2. jardunaldia

Olaizola II.a-Beroiz / Retegi Bi-Rezusta (Ostegunean, 17:00tan, Eibarren. ETB1)
Ezkurdia-Zabaleta / Artola-Albisu (Ostiralean, 17:00etan, Tolosan. ETB1)
Irujo-Barriola / Berasaluze II.a-Zubieta (Larunbatean, 17:30ean, Bilbon. LaSexta)
Xala-Merino II.a / Oinatz-Aretxabaleta (Igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)

Hiru sakandarrek irabaziz hasi dute Binakako Pilota Txapelketa

Hasi da Binakako Pilota Txapelketa. Eta sorpresekin, gainera. Maila handiko partidak izan dira lehen jardunaldikoak, markagailua estu izan dutenak. Berasaluze II.ak eta Aitor Zubietak sorpresa eman zuten eta 22-20 irabazi zieten Olaizola II.ari eta Beroizi, eta gauza berbera gertatu zen igandean Eibarren. Ezkurdiak eta Zabaletak 22-19 hartu zituzten menpean egungo txapeldun Irujo-Barriola.

Zubietaren debut ederra

Zubietak Asegarcerekin debutatzen zuen. Normalean Berasaluzerekin ez du jokatzen etxarriarrak eta hori asko nabaritzen da. Lau pilotariak ordu eta erdi pasatxo aritu ziren gogor lanean, zaleengan zoramena sortu zuen partidan. "Oso partida gogorra izan da, hasieratik desgaste handikoa. Partida erdialdera arte ez naiz eroso ibili. Urduri nengoen, aste berezia izan baita. Baina izerditzen hasita hobeto ikusi dut nire burua. Edozeinek irabazi ahal zuen baina Pablo eta ni izan gara eta pozik" azaldu zuen Zubietak.

Ezkurdia-Zabaleta bikain

Parez parekoa izan zen Ezkurdia-Zabaletaren eta Irujo-Barriolaren arteko partida. Aurreko urtean Ezkurdia-Zabaletari izugarri kosta zitzaien txapelketan sartzea. 6 jardunaldiren ondoren lortu zuten euren lehen garaipena eta ez zuten aurreikusitako maila eman. Baina aurten urte bat gehiagoko esperientzia dute eta hasiera bikaina eman diote txapelketari, aurreko urteko txapeldunak menpean hartu baitzituzten (22-19). Edonork irabazi zezakeen partida entretenigarria izan zen, bi tantotik gorako aldea ez baitzuen inork lortu. Sakandarrak Barriola estutzen saiatu ziren etengabe, eta nahiz eta leitzarrak ongi erantzun, bukaeran indarrak huts egin zion.

Hurrena

Ezkurdia-Zabaletak Artola-Albisu izanen dituzte aurkari eta Berasaluze II.a-Zubietak Irujo-Barriola. Ea garaipenek segida duten.

Iñigo Aritzak baditu pilotari txapeldunak

Giro bikainarekin jokatu ziren igandeko finalak

Igande goizean jokatu ziren, Altsasuko Burunda pilotalekuan, 11. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketako finalak. Txapelketan ikastolako 44 ikaslek parte hartu dute eta onenak sailkatu ziren igandeko finalerako. Finalean giro bikaina egon zen eta pilotazale asko hurbildu ziren. Sariak ikastolan pilota klaseak ematen dituen Ricardo Lopez de Sabandok banatu zituen.

Finalak:

LH3: Oier Mitxelena **17** – Patxi Azpeitia **18**
LH4: Iker Agudelo **18** – Hegoi Lakuntza **5**
LH5: Lander Peral **14** – Araitz San Roman **18**
LH6: Ekhi Olabide **12** – Angel Vergara **18**
DBH1: Izadi Reparaz **18** – Oier Berastegi **10**
DBH2: Beñat Aldasoro **17** – Urko Gartzia **18**
DBH4: Gorka Ansa **18** – Iñaki Bengoetxea **2**

Ricardo Lopez de Sabando saritu guztiekin.

Sakanako bidean da Olentzero

Gaur, asteazkenean, Sakanako makina bat herri bisitatuko ditu

Basoa eta txondorraren epela utzita, ikazkinak makina bat hitzordu ditu Sakanaren luze-zabalean.

Harrera horietarako kantu entseguak batean eta bestean prestatu dira, kapoiaz aparte aldean ekartzen dituen oparien truke Olentzerok jasoko dituenak. Lana aurreratu zuen ikazkinak larunbatean Etxeberri bisitatuz eta igandean Zuhatzura joanez. Gaur arratsalde-gau partean, lan ugari izango du.

Gaur goizean *pazkuan amores* eskean ariko dira haurrak Uharte Arakilen eta Etxarri Aranatzen. Goizez, kantu-eskean ere hainbat herritara aterako dira, esaterako, Altsasun eta Ziordian.

Hitzorduak

Herria	Ordua	Harrera tokia
Irurtzun	18:30	Plazaolako zubia
Etxarren	16:30	Eliza
Satrustegi-Hiriberri	17:00	Satrustegiko elkartea
Ihabar	18:30	Autobia azpiko zubia
Irañeta	18:00	Autobus geltokia
Uharte Arakil	18:30	Itxesin, Beriaingo bidea hasiera
Arruazu	19:30	Ubeldeko zubia
Lakuntza	18:00	Trenbide azpiko zubia
Arbizu	19:00	Plaza
Unanu	18:00	San Donato bidetik
Dorrao	18:30	Goitiko ur biltegia
Lizarraga	18:00	Menditik
Etxarri Aranatz	17:00	Aldapasoro auzoa
Bakaiku	17:30	Elkartean txokolate jatea
	18:30	Zulanpe
Iturmendi	19:00	Estafeta kalea, Bakaiku aldetik
Urdiain	18:00	Santa Marinako portuan
Altsasu	11:45	Plazan, Mari Domingi
	17:00	Plazan, Dantzalekura joateko
Olatzagutia	18:30	Belen iturria
Ziordia	17:30	Altzaniako bidea

2015ari ongi etorria emateko: Ur goiena, ur barrena...

Abenduaren 31n, urtea despeditu bezain pronto, 2015 urteari ongi etorria emango diogu Sakanan. Herri askotan *Ur goiena, ur barrena*... kantatuz eta iturrietako urte berriko lehendabiziko ura edanez emango diote ongi etorria urteari. Irañetan, Arruazun, Lizarragabengoan, Etxarri Aranatzen, Iturmendin eta Urdiainen mantentzen da iturriko ur berria jaso, ura edan edan eta *Ur goiena, ur barrena* kantua kantatzeko ohitura. Bestalde, Altsasun urteko azken egunean gaztainak eta ardoa banatuko dituzte Gure Etxean.

Hiru errege, trakatan-trakatan, Sakanara

Ilbeltzaren 5ean hiru erregeen kabalkadak iritsiko dira Sakanara

Hitzorduak

Herria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Liburutegiko plaza
Uharte Arakil	18:30	Manuel Goikoetxearen zurgindegitik
Lakuntza	18:00	Ibai aldetik
Arbizu	18:00	Udaletxea
Ergoiena	18:00	Lizarragako eliz atetik. Ondoren Dorraora eta Unanura joango dira
Etxarri Aranatz	19:00	Eliza
Bakaiku	18:30	Eliza
Iturmendi	15:00 Fara-joleak	Plaza
	19:00	Pilaralde kalea
Altsasu	17:30 Farejoleen errege zozketa	Plaza
	19:00	LH institutua
Olatzagutia	18:30	Jubilatu elkartetik
Ziordia	19:00	Texeria kalea

Ekialdeko hiru erregeek, Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek, Sakanarako bidea hartuta dute eta ilbeltzaren 5erako iragarri dute iritsiko direla. Erregeei behar bezalako harrera egiteko prestatzen hasi dira Sakanan barna. Eta Sakanaz ez ahazteko astelehen horretan bertan fale edo fare-ekin ibiliko dira goizeko 11:30etik aurrera haurrak Irañetan eta Lizarragan; arratsaldez Etxarri Aranatzen, Iturmendin edota Altsasun ariko dira.

Bestalde, txikiek idatzitako kartak jasotzeko haien morroiak edo pajeak Altsasura ilbeltzaren ilbeltzaren 3an, larunbatean, 19:00etan Burunda frontoira etorriko dira. Olatzagutian, berriz, egun berean 18:30ean, kultur etxean jarri dute hitzordua. Lakuntzako elizara ilbeltzaren 4an etorriko dira, igandean, umeen goizeko mezaren ondoren, haurren eskutitzak jasotzera.

bazterretik

Juankar Mugartza

Olentzero is now entering the Basque Country – Euskal Herria

Euskal Herria bat da eta ez berrogeita hamaika. Esaldia erdaraz esango bagenu, eta gure herriaren izenaren ordez aldamenekoen aberriaren izena idatziko bagenu espainiar nazionalisten lelo ezagun bat lortuko genuke. Egizue aproba, Google Translate ireki eta idatzi albo batean esapidea eta ikusiko duzue. Kontua da UPN eta PSNko buruzagieniritziz Espainiarentzategokiadena, ez omen da egokia Euskal Herriarentzat. Euskal Herria ez da bat haien iritziz. Espainia, berriz, bai. Espainiako errepide sarean Nafarroari buruz informazioa ematen bada, hori egokia da. Ordea, Euskal Herriko errepide sarean Nafarroari buruz informazioa ematen bada, hori guztiz desegokia da eta betiko astapitoak hasten dira kexaka eta helegiteak egiten, beste lan hoberik izan gabe.

Jendea etxetik botatzea ez al da larriagoa Euskal Telebistan agertzen den mapa bat baino? Ez al da larriagorik dirua eskukadaka lapurtzea errepide ondoko kartel bat jartzea baino? Probintziako Diputazioak, oso irizpide eta kriterio onarekin, trafiko seinale eder bat jarri du AP-15ean handik pasatzen diren bidaiariek 'Euskal Herria-Basque Country' izeneko aberrian daudela jakin dezaten, eta, bide batez, Leitzako Plazaola tren zaharraren ibilbidea, Aralar eta Iruñeko Ziudadela edo Gotorlekua non dauden edo haietara nondik joan daitekeen ezagut dezaten. Izan ere, guztiz zilegi da Leitza, Aralar eta Iruñea Euskal Herriko zati baitira. Hori ukatzen duen arnegariak bere fedea aldarrikatzeko eskubidea du, honela barregarri gelditu eta bere ezjakintasun gorena agerian uzten duen arren. Baina hori ukatzen ez duenak, benetan Euskal Herriari behingoz begirunea eta duintasuna zor zaizkiola uste duenak ere badu eskubidea berea aldarrikatzeko, eta gainera honela ezjakinei bere astotasunetik ateratzen laguntzen die. Olentzero etorri da. Asto baten gainean, astoak hezteko asmoz. Astoak asto diren arren, mailastoak ez bezala. Gure artean dago, pipa hortzean duela. Gaueangure neska-mutilak etorriko dira gaztainak zimelak jatera. Denok ongi etorriak izango dira, denok egongo gara etxean. Trafiko seinale egokiei esker ez gara galduko. Bidea aurkituko dugu. Olentzerok Basque Countryko seinalea dakarkigu opari. Euskal Herria bat egina, ez zazpi, sei, bost, hiru edo bi zatitan banatuta. UPN eta PSNri ez bazaie gustatzen bejondeiela, gaueko argizaiolaren argitan Guaixeren orri horiak irakurriko ditugu berdinberdin, turroia jaten dugun bitartean eta, santuak bagina bezala, gabon kantak abesten euskaraz. Gu euskaldunak garelako, Euskal Herrikoak. Laralala la la. Gabon pasa!!

Irurtzungo abesbatza **eguberriei kantari**

Larunbatean, 19:30ean Irurtzungo elizan eta igandea, 12:50ean, Kasedako elizan

Gabon kantekin eta obra erlijiotsuekin osatu du eguberri kontzertuko egitaraua Irurtzungo Abesbatzak. Emanaldian koruak Guerrero organo-jole zangozarraren eta Marta Huarte soprano eskiroztarraren laguntza izanen du. Fermin Idareta zuzendariak esan digunez, "oso pozik gaude, Antonio eta Marta gurekin aritzearekin, musikari eta pertsona apartak direlako. Oso aberasgarria izan da guretako haiekin kontzertua prestatzea, oso adeitsuak direlako eta asko laguntu gaituztelako. Nahiz eta konpromiso ugari izan, gurekin kontzertua prestatzeko denbora atera dute, eskertzekoa da".

+www.guaixe.eus

Egitaraua	
Kantua	**Egilea/moldatzailea**
Los peces en el río	Luis Elizalde
Olentzero	Javi Busto
Oh, Holy night	Adolphe Adam
Noche de paz	Herri-kanta
Hator-hator	Herri-kanta
Mesias Sarritan	Herri-kanta
Aita Gurea	Aita Donostia
Ave verum corpus	W.A. Mozart
Pie Jesu	Lloyd Weber
Aleluya	Haendel

Trasteandoren herri kantu

Larunbatean, 19:30ean eta 22:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Kontzertu bikoitza eskainiko du Trasteandok larunbatean. Altsasuko musika taldeak musikaren gizarte dimentsioa aldarrikatzen du. Horregatik jendea pozteko, joan den astean Altsasuko Aita Barandiaran adinduen egoitzan eta Josefina Arregi klinikan aritu ziren. Musikak jendea laguntzeko balio duela pentsatzen du ere Trasteandok, horregatik, eguberrietan elkartasun kontzertuak ematen dituzte. Aurten Nafarroako Elikagai Bankuarendako izanen da sarreretatik ateratako diru guztia.

Aurtengo emanaldiaren berezitasunetako bat da Unescok 2003tik babestutako ondare ez-materiala diren kantu adierazpenak emanen dituela Trasteandok: rantxerak, fadoa, flamenkoa, Peruko balsa, Kolonbiako doinuak... Haiekin batera euskarazko kantuak eta *Altsasuko herri kantak II* diskoan jasotako beste batzuk ere. Josetxo Lumbreras, Javier Herrero, Jorge Cordon, Leire Aiestaran, Javier Martinez eta Jesus Irisarri izanen ditu laguntzaile. Maria Eskisabel izanen da aurkezlea.

Urteurrena

Bederatzi aldiz emanen du Trasteandok eguberri kontzertua. Heldu den urtean hamarkada bat beteko du taldeak eta urteurrena bizpahiru kontzertu berezirekin ospatuko du. Lehena ilbeltzaren 24an izanen da, Sacalfi talde iruindarrarekin izanen da.

Ilargi beteko musikala

Astelehenean, 17:00etan eta 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Moonster party familiarteko musikalaren emanaldi bikoitza izanen da astelehenean Altsasun. Abandonaturik dagoen luxuzko etxe bat da Moonster nesken bilgunea. Han hiru lagun gotikoek ametsak eta kantuak partekatzen dituzte Kalabazen eta buruhezurren festa prestatzen duten bitartean. Baina etxean ez daude bakarrik, beste bi neska hiruko baten kontra aritu nahi dute, munstro ezberdin bat maite duelako. Baina hirukoak, Krapy magoaren laguntza izanen dute.

Laguntasun eta maitasun istorioa da 10 artistek taularatuko dutena, estetikoki oso zaindua. Musikari dagokionez, *Grease*, *Glee* eta *Romeo eta Julieta*ren moduko abesti ezagunek osatzen dute errepertorioa, Taylor Swift edo One Direction-en kutsua duten rock, funky, soul eta balada erritmoez jantziak.

Punk doinuak Garraxi Irratiaren 20. urteurrenerako

Ilbeltzaren 3an, larunbatean, 22:00etan Altsasuko gaztetxean

Altsasuko irrati libreak, Garraxi Irratiak (101,9 FM edo myradiostream.com/garraxi), 20. urteurrena du eta hori ospatzeko kontzertua antolatu du. Altsasuko gaztetxeko eszenatokitik Fuertes Dementes (Gasteiz), Asalto (Agurain) eta Desvarios Varios (Altsasu) taldeak pasako dira. Kontzertu horrekin abiatuko du Garraxi Irratiak heldu den urterako urteurren egitaraua.

Altsasuko irrati libreak gaur egun zuzeneko bost saio ditu. Horien berremisioekin eta estatuko makina bat irrati libreren berremisioekin egun osoko programazioa betetzen du Garraxi Irratiak. Egunero, ordua puntuan izan baino bi minutu lehenago hainbat web orriren titularrak ematen dituzte espazio horretan.

+www.guaixe.eus

Harremanetarako

garraxi@sindomino.net

Musika eta hitza eskutik

Nafarroa magikoa emanaldia larunbatean, 19:00etan Arbizuko kanpinean dagoen Amari yoga magikoan

Maite Itoizek (ahotsa, lauda eta zeltiar arpa) eta Toti Martinez de Lezeak (idazlea) musika eta iraganeko pasadizoak tartekatzen dituzten ikuskizuna eskainiko dute. Gizateriaren sorrerako sinismenek geroko gertakaritan eraginaz ariko dira. +www.guaixe.eus

Tragikomedia soziala eszenatokian

Ilbeltzaren 11n, igandean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean

Altsasuko Tarima Beltzak bere 5. antzezlana, *Nunca fuimos heroes*, jokatuko du Irurtzunen. Bakarrik sentitzen diren pertsonaiek osatzen dute obraren ardatza. Jon Barbarinen esanetara Mertxe Herrera, J M Herrero, Marta Diego, Josu Castillo, Natalia Martin eta Amaia Mintegi ariko dira.

Nonerabili

JAVIER AUTOESKOLA
IRURTZUN
% 10eko deskontua matrikulan.

PATXI GALARZA
IRURTZUN
% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA
LAKUNTZA
50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA
ALTSASU
Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA
ETXARRI ARANATZ
% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA
IRURTZUN
% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

KALUXA TABERNA
URDIAIN
Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupitoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan

CITROËN SAN MIGUEL
ALTSASU
Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan % 20 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA
ALTSASU
Gosaria (kafea+pintxoa edo bolloa+laranja zuku natural) 2,50€.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

Gasteko >> : eguraldia

asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea
euria: 10%	euria: 45%	euria: 40%	euria: 38%	euria: 85%	euria: 80%	euria: 85%
Min: -1 Max: 11	Min: 1 Max: 9	Min: 2 Max: 6	Min: -1 Max: 6	Min: 2 Max: 7	Min: 3 Max: 8	Min: 3 Max: 8

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	-	-	-
Altsasu	-	-	-
Aralar	-	-	-
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
28	5	13	20

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com
KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea
Acrylcolor SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixeguaixe

Abenduko bazkide zozketa

ABENDUKO SARIAK:
1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.
2. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.
3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.
4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magna Navarra Xotarako 2 sarrera.

>>11 galdera

Ainara Urkijo Goikoetxea

Guaixeko irakurlea eta azaleko protagonista

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

1.Orain dela 19 urteko toki berean elkartu gara zurekin, Altsasuko Gure Etxea-ko atarian. Zuk orduan urte bat zenuen, eta 20 urte dituzu gaur, Guaixek bezala. Guaixeko azalean agertu zinen orduan, urte batekin, Guaixek urte bat bete zuela islatzeko. Guaixe hori gordetzen al duzu?
Bai, amak gorde zuen. Duela gutxi atera zuen eta erakutsi zidan.

2.Zer sentitu zenuen?
Banekien orduko Guaixeko azalean atera nintzela eta amak erakusterakoan hasieran lotsa pixka bat eman zidan. Ni asko aldatu naiz, baina Guaixe ere asko aldatu da, eta Guaixe hartan agertzen den jendea ere bai!

3. Zein da Guaixeari lotuta buruan duzun lehen oroitzapena?
Gogoratzen naiz txikiak ginenean, ikastolan, edozeinen urtebetetzea zenean argazkia bidaltzen genuela Guaixean agertzeko, eta Guaixe iristen zenean korrika joaten ginela begiratzera ea noren urtebetetzea zen. Eta baita Guaixean agertutako argazkiak moztea eta gordetzearena ere.

4.Etxean betidanik Guaixea jaso duzue?
Bai, beti.

5.Aipatu Guaixeri lotutako zerbait ona eta zerbait txarra.
Ba ona, Sakanan dugun astekari bat dela eta harro nagoela astekari honetaz, gure gauza bat delako. Eta horrek pozten nau. Eta txarra, ba behin Guaixen agertutako albiste txar bat, bi lagun galdu genituenean. Orduko Guaixe berezia izan zen.

6.Gaur egun irakurtzen duzu?
Bai. Irakurri oso osorik, ez. Duela gutxira arte, urtebetetzeko argazkiak ziren gehien gustatzen zitzaidana. Egun, astekari osoa ikusten dut eta interesatzen zaidana irakurtzen dut. Atentzioa deitzen didan horretan gelditzen naiz, ezagunak agertzen badira artikulua irakurtzen dut, edo zerbait berezia dagoenean, inauteriak edo Korrikako argazkiak, adibidez.

7.www.guaixe.eus gure web orria bisitatzen duzu?
Bai, sartu izan naiz.

8. Zure inguruan Guaixe irakurtzen da?
Bai, eta gure artean komentatzen dugu: Guaixen hau agertu da, ikusi al duzue? Eta halakoak. Tabernetan ere Guaxe hartu eta komentatzen dugu. Guaixe sakandarretatik oso gertu dago.

9.Duela 20 urte atera zinen Guaixen, baina beste aldiren batean atera al zara?
Amonak urtero jartzen zidan Guaixean zorion-agurra.

10. Zer sumatzen duzu faltan Guaixean?
Aparteko ezer, baina lehen lagunartean aipatzen egon gara ongi egongo zela euskarazko denbora pasak egotea Guaixen, tabernan eseri eta egiteko.

11.Orduko Guaixeko azaletik 19 urte pasa dira. Hemendik 20 urtera berriro elkartuko gara?
Niregatik bai!